



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

GIZARTE-ONGIZATE BATZORDEKO AKTA

Eguna : 2013-07-21

Ordua : 18:30

Lekua : Batzar-gela 1

Bertaratuak: Ongizateko Batzorde burua: Rakel Elu

BILDUKO kideak : Haize Badiola
Juan Ramon Iriondo

ADEMBI : Nekane Landaribar

Antiguako Ama : Rosario Ducay
Rosario Urruzuno

GORABIDE : Begoña Zelaia
Inmaculada Laka
Jose Ibarloza

Minbiziaren aurkako elkarteak : Marije Ibarloza

GAI ORDENA:

- 1.- Aurreko aktaren onarpena.
- 2.- Herriko Ongizate Taldeen ekarpenak.
- 3.- Artibai Egoitzako egoera ekonomikoaren berri ematea.
- 4.- Amankomunazgoko estatutuen aldaketa proposamena.
- 5.- Eskaria-galderak.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

1.- Aurreko aktaren onarpena.

Aho batez onartzen da.

2.- Herriko Ongizate Taldeen ekarpenak.

ADEMBI- aurten “Busti Zaitetz” ekimeneko lekua aldatu dute.

Itsasaurretik Alamedara eta dena oso ondo joan da. Hemendik aurrera Alamedan izatea proposatzen da. Horrela, jendea errazago hurbildu dela ikusi dute eta horren ondorioz jende asko ibili da.

2 egun lehenago, ostiralean, BBK-koek muntaia burutu zuten, etxolaren armarrria eta igandean bertan goizetik toldoa. Kontuz izan behar duguna zera dela azpimarratu dute, bezperan umeak ibili direla bertan jolasean eta modu arriskutsuan dirudienez, beraz datorren urterako, ohar hau kontuan hartzea eskatzen dute.

Aurreko bi egunetan bandoak gogorarazi du ekimena.

Beste taldeetako hainbat partaide ere bertatik ibili ziren eta guztien balorazioa, oso positiboa izan da.

ANTIGUAKO AMA- abuztuaren 10ean izango dute luntxa euren egoitzan eta gero dantzaldia, DJ Zirkinekin.

Jaietako egitarauan agertzen denez ekimena, jende guztia enteratzen da eta partaidetza erraz bermatzen da.

Minbiziaren Aurkako ELKARTEA- Ongizate batzordetik, ongizateko taldeentzat diru laguntzarik badagoen galdetzen dute; gaur arte eskaerarik ez dela egiten azaldu da eta horregatik ez dela egiten diru laguntza deialdirik. Egiten den dirulaguntza bakarra, laguntza zuzena izaten dela, Antiguako Amarentzat.

Dena den, orain arte bestelako beharrik ikusi ez den arren, horren beharra dagoela ikusten badute taldeek, aztertu egin beharko litzateke.

GORABIDE- Aurten lehendakariaren aldaketa egin dute Lea Artibai eskualde mailan. 7 urtez Jose Ibarloza izan da eta ekainaz geroztik, Elena Lapazaran Ondarrutarra izango da.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Ondarruko Maskulo Etxeko goiko solairuko egoitzan, 25 plaza daude egoliarrentzat. Gorabidek kudeatzen du baina Bizkaiko Foru Aldundia da jabea eta beronek bideratzen ditu arautegia zein onarpenak.

BFA-k arautu du Ondarroako zentrorako bideratuko dituen egoliarrak ez direla izango menpekotasun handia duten pertsonak baizik eta autonomoak direnak.

Oraindik orain, 25 egoliar horietako inor ez da herritarra. Honek kezka sortarazten du, hau hola izanik, menpekotasun handia duten Ondarrutarrek garaia iristean, herriko zentroan izateko aukerarik ez baitute izango.

Lanean dabilta Ondarruko Gorabideko familiarrak, hau aldatu dadin edota aukeraren bat izan dezaten. Ondo ikusten dute batzordekide guztiek egiten ari diren lanketa hau.

Batzorde burua, aurrekoan bertako zuzendari lanetan dabilen Nerearekin egon zen eta honek azaldu zion, herrian integratzeko ahaleginetan dabilzala eta eurek parte hartu dezaketene dozein ekintzarik bideratuz gero, eurekin ere kontatzeko.

GORABIDEko Begoñak zorionak eta eskerrak ematen ditu Arrigorriko hondartzan luzatu den egurrezko pasarelarengatik eta baita bi pasarelak elkarrekin lotzeagatik.

Batzordetik, beste behin gehiago, “Hondartza Denontzat” programa herrian egotearen premia ikusten jarraitzen da.

Nekanez eskatu du, sorosleen aurreko eskaileretan ere arlanparen bat egon beharko lukeela.

3.- Artibai Egoitzako egoera ekonomikoaren berri ematea.

Egoitzako 54 plazetatik 33 Udalak kudeatzen ditu osotasunean.

Beste 21-k, BFArekin hitzartutakoak dira eta berauek, menpekotasun handia dutenentzat izaten dira besteak beste.

Egoliar guztiek, eurek ordaintzen dute dagokien kuota baina dirua gastatzen denean, BFA-koen kasuan, Aldundia kargutzen da egoliarraren mantenuaz (menpekotasun III. Gradua izanik, hala dagokiolako).

Udalaren plazetan daudenen kasuan ordea, kuota ordaintzeko beste dirurik ez dagoenean, egoliarraren sarreren %80a kobratzen da eta gainerakoa Udalak ipintzen du.

Artibai egoitzak dituen ordenantza fiskalak zorroztasunez betetzea dagokigu herrirako ezinbesteko zerbitzu hau urte askotan mantendu ahal izateko. Horregatik, egoliar bakoitzari ordenantza hauetan datorren informazio guztia eman eta betebeharrak guztiak eskatuko zaizkio.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Batzordekide guztiek ongi ikusi dute esandakoa eta horrez gain, BFA-rekin plaza gehiago hitzartzearen beharra ere somatzen da.

Aurreko hilean Udaletik, Alkatea, gizarte langilea eta egoitzako zuzendaria joan ziren BFA-ra plaza hauetaz hitz egitera eta datozen hileetan berriro joango gara datorren urterako zeintzuk aukera egon daitezkeen aztertzeraz.

4.- Amankomunazgoko estatutuen aldaketa proposamena.

27/2013 Udal Administrazioaren Arrazionalizazio eta Sostengarritasunaren legerari egokitzeko, amankomunazgoei euren estatutuen modifikazioak egiteko aukera eman zaie.

Lea-Artibai Amankomunazgotik proposamen bat egon zen baina proposamen horrek ez zuen jasoten Batzorde honek proposatu zuen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen planifikazioa egiteko aukerarik adibidez. Hori kontuan hartuta, beste proposamen bat aurkeztu zen amankomunazgoan bertako kide garenen aldetik eta hauxe da gaurko Batzordean azaldu dena. Testuan agertzen diren moldaketak azaldu dira. Batzordekideak ontzat emateaz gain, gure herriko egoera espezifikoaren berri gehien bat herritarrok izanik, planifikazioaren aukera izan beharko genukeela ikusten jarraitzen dute.

5.- Eskaria-galderak.

DENON ARTIN Janari eta akonpainamendurako bolondresak darabilten lokalaren aldaketa emateko Udala egiten ari den urratsen berri eman du Batzordeburuak.

Batzarra arratsaldeko 20:10ean bukatutzat ematen da eta hurrengo batzarrerako data zehatzik gabe, deialdia berria egiten denean esango da.

Ondarroa 2014ko irailaren 5ean